

zer ote?

Zizurkilgo aisialdirako gida



Zk. 189 / Uda 2020 iraila
www.zizurkil.eus / 943 691012
 Ernio Bidea 9A, behe, 20159 ZIZURKIL

ARANTZAZUKO AMAREN JAIK

ez dira ospatuko
 COVID 19ak sortutako
 egoera dela eta, baina
 FESTA BATZORDEAK
 hainbat kultur
 ekitaldi antolatu
 ditu irailerako.

Zehazten diren
 neurriak errespetatuz,
 goza ezazue!

EUSKARA

CURSOS DE EUSKARA

IKASTAROAK

EUSKALDUNTZEA: Zizurkil eta Villabonako udalek herrian bertan euskara ikasteko aukera eskaintzen dizuete, beti ere, taldeak osatzen badira, eta, gainera, diruz lagunduta: Maila guztietako ikastaroak.
 Etorri berrientzako AISA ikastaroak.
 Oinarrizko mailako ikastaroak.
 1. eta 2. hizkuntza-eskakizuna lortzeko ikastaroak.
 Autoikaskuntza-ikastaroak.

MINTZALAGUNA.

Zatoz euskaraz hitz egitera, tarte atsegin bat igaroz!

KIROLA

ZIOTZA PILOTA ESKOLA:

Benjamin, alebin, kadete eta infantilentzat pilota eskola.
 Neska eta mutilak.
 Prezioa: 50€.
 INTXAUR PILOTALEKUAN.

CIRCULO FEMENINO

EMAKUME ZIRKULUA

Helburua: energia femeninoa berreskuratu eta ospatzea.

Zer da? Emakume zirkulua, emakume topaketa bat, da eta bere esentzia bertako emakume bakoitzarekin osatzen da, ez da ezer finkoa, estatikoa, baizik eta elkarren presentziaren baitan sorturiko mugimendu energetikoa.

Emakume zirkulua espazio intimo eta sakratua da, errespetuz eta maitasunez eraikia. Norbera den bezala azaldu eta garen bezala onartzen gaituen espazioa.

Noiz? Urriaren 2an hasita hamabostero

IRIARTE ETXEAN 18:30ean

ZATOZ ZIRKULUA OSATZERA!

NESKA, ZATOZ KORRIKA! Irailaren 11n hasita, ostiraletan 18:30ean emakumeei zuzenduriko entrenamendu gidatuek jarraituko dute, Aitziber Ibarbia kirolariaren eskutik, Otaño ikastetxeko frontoian.

ENTRENAMIENTOS GUIADOS PARA MUJERES

Ikasturtea urriaren 1ean hasiko da
eta ekainaren 18an amaituko.

Matrikula epea irailaren 10etik 25era.
Izen-emateak Zizurkilgo udal bulegoetan (Ernio
Bidea 9-A, behea), 943 69 10 12 (4. luzapena)

zenbakian. Izena ematean, ikastaroaren
ordainketa egin beharko da edo Udaleko kontu
korrontean ordainketa egin izanaren
ziurtagiria aurkeztu beharko da.

• Izen-emate orria ere bete beharko da.

• Bi edo ikastaro gehiagotara izen
ematen duen pertsonak
ordainketa bi epetan egiteko
aukera izango du: irailean ikastaro
bat eta urtarrean gainontzekoak.

• Talde bakoitza sortzeko gutxieneko
ikasle kopuru bat beharrezkoa
izango da eta GEHIENKO
kopuru bat finkatuko da
talde bakoitzean,
derrigorrezkoak diren
distantziak mantendu
ahal izateko.

IKASTAROAK CURSILLOS

MATRICULA ABIERTA

a partir del 10 de
septiembre

- Ikastaroetan izen ematen duten pertsonak Udalak finkatuko dituen protokoloak betetzeko konpromisoa bereganatuko dute: distantziak, garbiketa neurriak, musukoen erabilera, e.a. Protokolo hauek ikastaroak hasten diren momentuan emango zaizkio ikasle bakoitzari.
- Ikasturtean zehar beste konfinamendu bat bizi behar bada, Udalak irakasleekin klaseak jarraitzeko modu egokiena adostuko du eta hauek bideratuko ditu. Modu birtualean jasotako klaseak klase normal bezala kontatuko dira, eta ez da diru itzulketarik egingo.
- Izen emateko EPE BAKARRA irekiko da (irailean). Hau da: ikastaroa hasi ondoren ez dira izen emate berriak onartuko. Ikastaro bakoitzean sortuko den itxaron zerrendako interesatuek izango dute ikastaroetan hasteko aukera, ikastaroan bajak egon badira.
- Ikastaroetan baja eman nahi duenak idatziz eskatu beharko du urriaren 31 baino lehen.



1. ATXULONDO KULTUR ETXEKO IKASTAROAK

HAURRENTZAT:

- **ANTZERKI TAILERRA:** 2014-2008 urteen artean jaiotako umeentzat, ostiralean 18:00etatik 19:30era. Prezioa: 90€. GEHIENEZ 12

HELDUENTZAT:

- **PATCHWORK:** asteazkenetan, 18:00etatik 20:00etara. Prezioa: 100€. GEHIENEZ 8
- **YOGA:** astelehen eta asteazkenetan, 18:30etik 20:00etara. Prezioa: 135€. GEHIENEZ 16
- **PILATES AURRERATUA:** astearte eta ostegunetan, 18:30etik 19:30era. Prezioa: 140€. GEHIENEZ 14
- **FORMAN JAR ZAITEZ:** astelehen eta ostiralean, 17:55etik 18:55era. Prezioa: 135€. GEHIENEZ 14
- **ZUMBA:** asteazken eta ostiralean, 19:30etik 20:30era. 135€. GEHIENEZ 14
- **DANCEHALL:** asteazkenetan 19:15etik 20:15era eta larunbatetan 11:30etik 12:30era. Prezioa: GEHIENEZ 14
- **INGELESEKO MINTZAPRAKTIKA:** asteazkenetan 18:30etik 20:00etara Plazida Otaño Liburutegian. First maila. 120€ GEHIENEZ 8

JUBILATUENTZAT:

izen-emateak eta prezioak ELIZPE JUBILATU ELKARTEAN:

- **GINNASIA:** astelehen, asteazken eta ostiralean, 10:00etatik 11:00etara. GEHIENEZ 14
- **JOSKINTZA ETA ESKULANAK:** ostegunetan, 16:00etatik 18:00etara. GEHIENEZ 8
- **YOGA:** astearte eta ostegunetan, 10:00etatik 11:30era. GEHIENEZ 14

2. IRIARTE KULTUR ETXEKO IKASTAROAK

- **ESKULANAK:** ostiralean, 15:00etatik 17:00etara. Prezioa: 100 euro. GEHIENEZ 10
- **HELDUENTZAT GIMNASIA:** astelehen eta asteazkenetan, 11:45ean. Prezioak: jubilatuek 80 euro / jubilatuek ez direnek 110 euro. GEHIENEZ 10
- **MEMORIA TAILERRA:** asteazkenetan 18:30etik 20:00etara. Prezioa: 100 euro. GEHIENEZ 6

3.- BUKALAI DANTZA TALDEA

8 talde osatu dira eta ikastaroak
astearte, asteazken eta
ostegunetan emango dira.

4. LOATZO MUSIKA ESKOLA

Informazio gehiago 943 69 18
57 telefono zenbakian.



Zatoz GAZTEZULORA!

Irailaren 10etik aurrera berriz ere
zerbitzua irekiko dugu.

Astelehen eta ostegunetan,
9-11 urte bitarteko gaztetxoak:
17:00-18:30: LH4 eta LH5.
18:30-20:00: LH6.

Ostiralean:
12-17 urteko nerabeak
17:00-18:30: DBH1 eta DBH2.
18:30-20:00: DBH3 eta DBH4.

Larunbatetan:
16:30-18:00: DBH1 eta DBH2.
18:00-19:30: DBH3 eta DBH4.

¡Te estamos esperando!